

# KOLORETXE

**AUZO GARAIETAKO EMAKUMEEN ETXEA**





# KOLORETXE

**AUZO GARAIETAKO EMAKUMEEN ETXEA**

**GALTZAGORRI  
SAN FRANTZISKOKO  
EMAKUMEEN TALDEA  
GRUPO DE MUJERES  
DE SAN FRANCISCO**



**Urria 2017**



## SARRERA

---

# 1

## JUSTIFIKAZIOA

---

# 2

## BILBO ZAHARRA, SAN FRANTZISKO ETA ZABALA AUZOEN GAINEKO AZTERKETA LABURRA

---

# 3

## AUZO GARAIETAKO EMAKUMEEN ETXEA

---

3.1. Helburu orokorra

3.2. Emakumeen Etxearen oinarriak

3.3. Etxearen jarduera ardatza, helburu zehatzak eta eginkizunak

3.4. Metodologia. Prozesu parte-hartzailea

3.5. Ekipamendu premiak

# 4

## KOKAPENA, KUDEAKETA ETA FINANTZABIDEA

---

4.1. Kokapena

4.2. Kudeaketa eta finantzabidea

# 5

## ERANSKINAK

---

5.1. Araudia eta berdintasun politiken bilakaera

5.2. EAEko Berdintasunerako IV. Plana. Ahalduntze ardatza

5.3. Berdintasun politikak Bilbon



## SARRERA

---

Proiektu honek, **Bilboko auzo garaietan (San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra) Emakumeen Etxe bat eraikitzeko** San Frantziskoko “Galtzagorri Emakume taldeak” egindako proposamena biltzen du.

Bi urte baino gehiagoko prozesu parte-hartze sozial baten emaitza da, eta bi fase ditu. Lehenengo eta behin, zirriborro bat osatu genuen eta auzoko eragile ezberdinekin alderatzeko aukera izan genuen hainbat tailerren bidez. Tailer horietan ekarpen asko jaso genituen eta hauek 2.fasean egindako jardunaldi irekietan (2016ko ekainean) jasotakoekin osatu genituen. Ekarpene horiek guztiak jasota daude aurrean duzuen dokumentuan.

Sistema patriarkal batean bizi garela abiapuntutzat hartuta, emakume eta gizonen arteko berdintasuna plano formalean baino ez dela ematen jakin badakigu. Legeek berdintasuna aldarrikatzen dute baina datuak bestelakoak dira. Datuok, generoagatiko bereizkeria desagertu ordez itxura berria hartu eta betikotzen ari dela adierazten dute.

Galtzagorri Taldean, emakume izate hutsagatik pairatzen ditugun zailtasunak, norberaren bizi-errealitateak berak ezartzen dituenekin gurutzatzen direla deritzogu. Hori dela eta, honako gertaera hauei erreparatu behar diegu:

**1. MIGRAZIO-PROZESUEI** garrantzi handia ematen diegu (Espainiako Estatuko herri ezberdinetatik zein munduko beste herrialdeetatik) gure auzoetako emakume askok bizi izan baititu, halaber, bertan bizi diren emakumeen bizi-baldintzei ere ezinbestean erreparatu behar diegu.

Migrazio-prozesuen berariazko faktore batzuek emakumeak babesgabetasun edo kalteberatasun egoera handiagoan uzten dituzte, besteak beste, bortizkeria matxistak. Faktore horien artean honako hauek dira ohikoenak: norberaren egoeraren gaineko segurtasunik eza, sarerik ez izatea, erasotzailearekiko menpekotasun ekonomikoa, hizkuntza-oztopoak, edo Erakunde Publikoekiko pertzepzioa, hau da, mehatxutzat eta ez babes iturritzat jotzea. Hau horrela izanda, gure auzoa Bilbora migratutako emakumeen helmuga nagusia denez gero, nahitaezkoztat jotzen dugu bertan Emakumeen Etxe bat egotea.

## 2. ESPARRU PUBLIKOAREN ERABILERA

Beste aldetik, auzoan dagoen kultura-aniztasuna eta bertako esparru publikoetan dagoen bereizkeria hautematen dugu. Hau horrela, kultura ezberdinetako

---

pertsonak bereizitako modu batean erabiltzen dituzte plazak zein kaleak. Gainera, espazio publikoaren okupazio hori maskulinoa izaten da gehienbat, aldiz, gure auzoetako emakumeek maiz darabiltzatenak espazio itxi eta pribatuaren hurbilekoenak izaten dira. Espazio publikoaren maskulinazazioari loturik, auzo barruan emakumeek pairatzen duten isolamendua nabarmentzekoa da, hori dela eta, Emakumeen Etxea kulturen arteko topaleku izango da, eta, era berean, espazio publikoaren erabilera bidezkoagoa erraztuko du, esparru publiko-gi-zonezkoena/ esparru pribatua-emakumezkoena dikotomia apurtuz.

### 3. AUZOKIDEEN ADIN HANDIA

Beti inguruan bizi izan diren adineko biztanle asko daude bertan, eta hauetako hainbatek hartzen du parte Jubilatuen Etxeak antolatzen dituen jardueretan. Baina zentro hauek azpimarragarriak diren bi ezaugarri dituzte:

Espazio hauek emakumeei tradizionalki esleitutako rolengatik, zein esleitzen zaizkigun espazioengatik ere maskulinizatuta egon ohi dira.

Aldi berean, zaharkeria edo adin-arrazoiagatiko diskriminazioak zahartzaroaren inguruko ideia esteriotipatu eta orokortuak hedatzea eta aro hau ezaugarri negatiboekin lotzea ahalbidetzen du, esate baterako: pasibotasuna, mendekotasuna, babesgabetasuna, hondatze fisiko eta kognitiboa. Emakumeen Etxearen proiektuarekin, ezaugarri negatibo hauekguztiak deseraikitzea gustatuko litzaiguke.

### 4. PROSTITUZIOA

Prostituzioaren gaiari ere heldu behar diogu, honek aparteko kapitulua beharko lukeela jakinda ere. Hau, bi hamarkadatik hona hondar-jarduera izatetik emakume gazte etorkin askoren biziraupen ekonomiaren oinarria izatera igaro da. Alde batetik, euskal jendarteak emakume horiei eskeintzen dizkien aukerak oso urriak dira, eta bestetik, emakume etorkin izateari atxikituriko zailtasunak daude: erkidego honetako hizkuntza ofizialak ikasteko alfabetatze maila urria, eta laguntzarik eza edozein egoeratan, amatasunaren kasuan adibidez (hazketako askok utzi ditu seme-alabak jaioterrian amamen edo hurbileko senideen kargu). Beste kasu batzuetan, jatorriko herrialdean egindako ikasketak ez homologatzeak, edota hau lortzeko zailtasunak, lan-merkatuarentzat sarbidea oztopatzen die, eta lortzekotan, oso baldintza prekarioetan.

### 5. HAZKUNTZA ETA MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ZAINTZA

Era berean, hazkuntza eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza emakumezkoen kolektiboaren ardura da, halaber, erantzukizun-postuetarako sarbidea zailagoa da, gizonezkoen kooptazio sistemek meritokrazia ordezkutzen

---



baitute, eta ondorioz, emakumezkoen langabezi- eta jardueragabetasun-tasa gizonezkoena baino altuagoa da beti.

**6. Azkenik, prekaritatea, pobretzea eta emakumeek egiten dituzten lanak ez aitorzea** kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk dira; honek guztiak, infraetxea, etxerik gabe geratzea eta elikadura eta energia-pobrezia arazoak dakartza. Oro har, emakume guztiek pairatzen dituzten ondorioak 65 urte baino gehiagoko emakumeen artean larriagotu egiten dira.

Pisuzko sei arrazoi horiengatik, Galtzagorrik egiaztatzen du generoa bazterketa eta bereizkeria-faktore nagusietako bat dela gure jendartean; eta baieztatzen du Auzo Garaietako Emakumeen Etxeak desparekotasun hori erauzteko borrokan dabilzan elkarte eta talde ezberdinen artean sinergiak eta sendotasunak sortzeko espazioa izan behar duela. Azken buruan, Mugimendu Feminista hazi eta indartzeko espazioa da, Bilboko emakumeen eta gizonen onurarako.

Galtzagorrik proposatzen duen Emakumeen Etxea, berau osatzen duten emakumeen parte-hartzean, ahalduntzean eta komunitatearen eta elkartearen erantzunkidetasunean oinarritzen da, ahalduntze-prozesu indibidual zein kolektiboak bultzatuz.

Gure auzoetan, kultura-aniztasuna bereizgarri izanda, Emakumeen Etxearen sorrerak ahalbidetuko du:

Jakite-truke prozesuak eta jatorri desberdineko emakumeen arteko hartu-emanak, auzoa aspaldi ezagutzen duten eta iritsi berriak direnen artean.

Gainera, Etxeak, etengabeko transformazioan dagoen, baina generoagatiko bazterketa elikatzen duen globalizatutako eta elkarri lotutako mundu honen konplexutasunak ulertzeko espazioak eskainiko ditu. Mundu globalizatu honek esparru ezberdinetan genero-bazterketa iraurarazten du: bortizkeria matxista, diskriminazioak lan-eremuan (soldata-etenean), gizonekin erantzunkidetasun urria, bai etxeko lanetan, bai mendeko pertsonen zaintzan, baita berezko espazio komunitarioen gabezia ere eta emakumeen ikusezintasuna parte-hartze esparru sozial eta politikei dagokienez.

Irmoki uste dugu elkartruke eta ikasketa prozesu hauek guztiek, emakumeen arteko laguntza sareak sortzen lagun dezaketela. Sare hauek emakumeen bizi-prozesuak erraztuko lituzkete eta batzuen zein besteen jakintzak aberastuko, eta komunitate bidezkoago, ahaldunduago eta zuzenagoaren eraikuntzan lagundu.

Galtzagorrik, bere ibilbide feministari esker, Emakumeen Etxeari hura habetzeko aldarnioak ematen dizkio, berau auzoetako elkartzeko mugimenduekin batera erakitzen jarraitzeko, Erakundeak bere aldetik azpiegitura hornitzeaz eta finantzatzeaz arduratu beharko dira.

Honengatik guztiarengatik Koloretxe izango da:

- **Auzo garaietan Emakumeon talde-erakuntza ahalbidetuko duen burujabetze eta elkartzeko espazio-denbora propio bat.**
  - **Parte-hartzea sustatuko duen konfiantzazko toki bat: begirunezko, duintasun eta askatasun baloreetan oinarritutako tokia.**
  - **Ahalduntzerako, formakuntzarako, jakintzak elkartrukatzeko eta norberaren garapenerako tokia.**
  - **Norberaren bizitzari lehentasuna ematen dion espazio-denbora.**
  - **Bortizkeria matxista zein transistemikorik gabeko tokia.**
  - **Zerbitzuak koordinatzeko eta eskubideen defentsa-aldarrikapenerako espazio-sarea.**
  - **Emakume bakoitzaren erritmoa, nahiak, zailtasunak eta gaitasunak beti errespetatuko dituen tokia.**
-

# 1

## JUSTIFIKAZIOA

---

Bilbo, antolakunde feministei dagokienez, ehun-asoziatibo sendoa duen 346.278 biztanleko (2015) udalerrri bat da.

Euskal Mugimendu Feministaren hastapenak 1976an Bilbon burutu ziren probintzia-batzarrak eta Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren -Martxoaren 8aren lehendabiziko ospakizuna izan ziren. Urte bat geroago, 1977an, Leioan (Bizkaia) guzurrean historikoak diren Jardunaldi Feministak ospatu ziren.

Geroztik dihardute borrokan Bilboko emakume feministen elkarteek, emakumeek esparru publikoan zein pribatuan, bai arlo asoziatiboan bai plano instituzionalean (udaletxea, eskolak, unibertsitateak, enpresak...) pairatzen duten bereizkeriaren kontra.

Galtzagorri Taldea 1992an jaio zen, euskal mugimendu feministaren hamarkadetakoko borrokei jarraipena emateko asmoz; haien asmoa San Frantzisko auzoko emakumeen asoziazionismoa sustatzea eta Bilbo Zaharreko zein Bilboko gainontzeko emakume taldeekin koordinazioa bultzatzea zen.

Jarraian, Galtzagorri Taldeak izandako hiru aldiei erreparatuko diegu. Lehenengo, 1992tik 1995era bitartekoa izan zen, honetan San Frantziskoko Auzokideen Elkarteak bultzatutako "La Kultur" gune soziokulturala egotea erabakigarria izan zen. Espazio honek bertan auzoko emakumeentzako hitzaldiak zein tailerrak antolatzeke aukera eman zigun. Jarduera hauek bai norbanakoa, bai taldea ideia feministetan murgiltzeko parada eskaini zuten, baita auzoko beste emakumeengana hurbiltzeko eta elkar ezagutzeko ere. Gainera, Ijito kolektiboko emakumeen burujabetze prozesuetan elementu gakoa izan zen.

1995etik 2006ra arte bigarren garaia hasi zen San Frantziskoko Auzo Elkarteak bultzatutako espazio soziokulturalaren sorrerarekin: "Txakur Berde Sarea" San Frantziskoko Sare Solidarioa (1997an). Gune horretan ikastaro, mintegi eta lehiaketa ugari antolatu zituzten, besteak beste, *Gure auzoak emakume begiradapean* (2001ean), Bilbo Zaharreko Zonaldearen berrurbanizazioan emakumeen parte hartzea eskatuz. Lorpenen artean, San Frantziskoko Mariaren Bihotza Plazako haurtzaindegia daukagu (1999an). Bere kideen bizitza familiar, pertsonal eta laborala bateratzeko ezintasunagatik 2006an Galtzagorrik bere jarduera bertan behera utzi behar izan zuen.

La hamarkada bat geroago, eta auzoko emakume ugari genero arrazoiagatik era askotako bereizkeriak pairatzen zituztela egiaztatu ondoren, 2015aren erdialdean Galtzagorri Taldea berragertu zen, eta orduan hogeit hamar emakume baino gehiagok hartu zuten parte aktiboki.

---

Hirugarren garai hau Auzo Garaietako Emakumeen Etxearen inguruko interesak markatuta egon zen, modu integralean Auzo Garaietako emakumeek antzemandako behar gehienei erantzuten dien proposamena baita. Haren lekuko izan ziren 2016ko ekainaren 9an eta 10ean “Ze nolako etxea nahi duzu zuk?” izenburupean burututako jardunaldiak. Berauetan kultura-jatorri desberdineko 100 emakume baino gehiagok parte hartu zuten. Jardunaldi hauek funtsezko bi helburu bete zituzten:

**Emakumeen Etxea eraikitzeko proiektua ezagutaraztea**

**Auzoko beste emakumeekin sarean lan egiten hastea.**

Espazio honek, guk hobeto elkar ezagutzeko, aliantzak ehuntzeko eta auzoetako emakume guztien artean amankomuneko planak garatzeko topaleku izan behar duela jabetzen gara

Emakumeen Etxea izeneko 2. puntuan, lan metodologia eta arlo estrategikoen birtartez lortu nahi ditugun helburuak zehazten dira, baita proiektu hau gauzatzeko hain beharrezkoak diren baliabideak ere.

---

## 2 BILBO ZAHARRA, SAN FRANTZISKO ETA ZABALA AUZOEN GAINEN AZTERKETA LABURRA

---

Bilboko hiru auzo hauek hiriko beste auzoetatik bereizten dituzten ezaugarriak dauzkate: langabezia eta pobrezia arrisku tasen indize altuak, baita Bilboko beste zonalde batzuekin konparatuta atzerriko populazioaren presentzia nabarmena ere.

Galtzagorri gertaera diferentzial hauetan oinarritu da eta auzoei buruzko datu sozioekonomikoak genero berdintasunezko begiradapean interpretatu ditu; datuok Bilboko zonalde horretan Emakumeen Etxea sortzeko beharra berreztera garatuz, sarreran seinalatzen den bezala.

Beste aldetik, auzoko elkarte desberdinek eta San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabalako taldeen Koordinakundeak, bere aldetik, Udalak auzo hauei emandako erremintak gutxiak direla salatu dute askotan: Bilbo Zaharra Birgaitzeko Udabulegoa, Bizikidetasunerako Behatokia eta, azkenik, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalako Erkidego Plana (2012-2016). Era berean, ez aspalditik auzo horietan bizi eta berauek defendatzen ditugun pertsonak, ezta oraintsu iritsi direnek ere, tresna hauek ez dituztela propiostat sentitzen baieztatu dezakegu. Ekimen hauek auzotarren bizi-kalitatearen hobekuntzan espero zen eragina ez dutela izan hautematen dugu.

Unera arte hartutako neurri instituzionalek baztertze-prozesuak epe motz-ertainera ezabatuko dituen praktika integratzaileak sortzea ez dutela lortu ondorio nabaria da, ezta ondoren ikusiko dugun bezala, Auzo Garaietako arazo zentrala den pobrezia arindu ere.

Datu nabarmen batzuk seinalatu aurretik, globalizazio neoliberalaren modeloaren egungo krisiak ongizate-estatuaren ahultzea ekarri duela ondorioztatu beharrean gaude. Literatura feministak ondo adierazten duen bezala, emakumeak, gai sozialetarako aurrekontuetan gobernuak egindako murrizketen aurrean “airbag” gisa jokatzera behartuta daude.

Emakumeek, hain zuzen, baliabide-jaistearen ondorioz, mendeko pertsonen zaintzari dagokionez erantzukizun handiagoa daukate. Halaber, beren enplegukargak areagotu behar dituzte tasen zein prezioen igoera eta oinarritzko zerbitzuen garestitzeari erantzuteko. Krisi-testuinguru honetan, auzoko emakumeek erabili ahal izateko espazio bat edukitzea ezinbesteko tresnatzat jotzen dugu, hauek denbora eta baliabideak erabiltzeko dituzten zailtasunak arintzeko.

Jarraian, *“Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetako lan-egoera, 2011”* izeneko txostenetik ateratako datu nabarmenetako batzuk aurkezten ditugu:

---

Kontuan hartzekoa da, 16 urte baino gehiagoko populazioa 14.416 pertsonetako zela, hots guztizkoaren % 88, eta 16 eta 64 urte bitarteko populazioa 11.284 pertsonetako, hots % 68,9.

**1. Taula:** Sexuaren arabera 16 urte baino gehiagoko populazioa: jarduera, okupazio eta langabezia-tasa (2011).

Jardueraren arabera populazioa	Gizonak (%)	Emakumeak (%)	Guztira (%)
Jarduera-tasa (>=16 años)	69,8	51,9	61,2
Jarduera-tasa (16-64 años)	83,9	70,9	78,1
Enplegu-tasa (16-64 años)	50	50,9	50,4
Langabezia-tasa	40,3	28,4	35,5
Jarduera-eza-tasa	30,2	48,1	38,8

*Iturria: "Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetako lan-egoera, 2011" txostena.*

Datu hauen argitan egiaztatzen denez gero, gizonei dagokionez, 16-64 urte bitarteko taldeko jarduera-tasak 13 puntuko ezberdintasuna erakusten du tarte bereko emakumeenarekin alderatuta.

Beharbada zifra honek lan-merkatuan parte hartzea oztopotzat jotzen duen emakume talde handi bat ezkututzen du, ez ordaindutako lanagatik, hala nola ordaindutakoa bai baina bere ordutegiei egokitutako lan duina aurkitzeko aukerarik ezagatik.

Zentzu honetan, ikerketa zehatzagoa eta sakonagoa egin beharko litzatekeelakoan gaude, batetik, emakumeen lan-merkatutarako sarbidea zein oztopok galarazten duen ezagutzeko eta bestetik, jakiteko, denborazkotasuna batik bat emakumeengan erortzea zerk eragiten duen. Azken honek, gainera, autonomiarik eza eta ahultasuna dakartza

Emakumeek orokorrean, eta are gehiago, lanik gabe edo prekarizatuta dauden emakume migranteek sufritzen duten diskriminazio anizkunak arintzeko, Galtzagorri Taldeak honako hau proposatzen du: emakumeei ahalduntze handiagoa ekarriko dien eta jendarte-aldaketarako bidean eta ahotsik ez duten auzoko emakumeei ahotsa emateko espazioak sortzeko akuilu lanak egingo dituzten jarduerak bultzatzea.

Honetarako, gure auzoetako emakumeen errealitatearen gaineko diagnostika egitea premiazkoztat jotzen dugu.

# 3

## AUZO GARAIETAKO EMAKUMEEN ETXEA

---

### 3.1. HELBURU OROKORRA

Hiru auzoetan, gizon eta emakumeen artean egiazko berdintasuna erdiesteko proiektuak, baliabideak eta programak bildu eta sustatuko dituen gune kolektiboa izango da.

### 3.2. EMAKUMEEN ETXEAREN OINARRIAK

Auzo Garaietako Emakumeen Etxea zutabe hauen gainean eraikiko dugu, bere funtzio nagusiak egituratu ditugun ardatzekin bat eginez:

**Emakumeon talde-eraikuntza ahalbidetuko duen burujabetze eta elkartzeko espazio-denbora propio bat.**

Emakumeen Etxea auzoko emakume guztientzat, eta bereziki, bazterketa edota ahultasun egoeran daudenentzako baliabideak eta eraldaketarako aukera eskaintzen dizkigun topagune bat da. Bazterketa egoeran dauden emakume horiek, bertakoak zein migratutakoak, bakarrik, isolatuta, jendarte-sarerik gabe “sartzen dira” Emakumeen Etxera eta eraldatuta “irtetea” dugu helburu: jendarte-sarearekin, sendotuta, zailtasunei aurre egiteko baliabide psikologiko gehiagoz, enplegua bilatzeko konpetentzia gehiagorekin, bortizkeria matxistaren aurka borrokatzeko erremintez, parte-hartze sozial eta politikorako trebatuta, sororidadea eta erresilientziarako trebetasunekin, eta abar.

Espazio publiko/pribatuaren (barruan-kanpoan) arteko planteamendu dikotomikoaz apurtu nahi dugu. Hori dela medio, Etxe hau, eremu pribatutik publikora igarotzea eta biak elkartzea ahalbidetuko digun etxea izatea nahi dugu. Indarrez igaro nahi dugu batetik bestera, subjektu kolektibo baten partaidea izateak ematen digun indarraz, auzoan zein kalean presentzia izanez, azken buruan, eraldaketa politiko zein sozialerako ahalmenarekin.

**Parte-hartzea sustatuko duen konfiantzako toki bat: begirunezko, duintasun, aniztasun eta askatasun baloreetan oinarritutako tokia**

Emakumeen Etxea, elkarrekiko begirunea eta jakintzak elkarbanatzea sustatzen duen espazioa da, beti ere, elkarren onarpenean eta inposiziorik gabe.

Konplize izateko, emakumeek bere burua konfiantzaz adierazteko eta harreman horizontalak ezartzeko espazioa. Konfiantzak eta elkarrekiko ezagutzak zuzeneko ondorioak dakartzate: emakume guztien parte-hartzea areagotzea, nork bere

---

aniztasunekin (sexuala, funtzionala, kulturala, klase mailakoa, belaunaldiari lotutakoa, etniakoa). Azken finean, mendekotasuna eragiten duten kausa guztiak kontuan hartu eta emakumeen sorodidadea, inklusioa eta ahalduntzea sustatzen duen espazioa da.

### **Ahalduntzerako, formakuntzarako, jakintzak elkartrukatzeko eta norberaren garapenerako tokia.**

Feminismoetan eta emakumeen ahalduntzearen inguruan formakuntza izatea ezinbestekotzat jotzen dugu, berdintasun arloan ematen ari den atzerakadari galga ipintzeko eta gure indarra bereizkeria mota guztien aurka borrokatzen duen jendarte-justiziara bideratzeko.

### **Norberaren bizitzari lehentasuna ematen dion espazio-denbora..**

Emakumeen Etxeak bermatuko ditu norbere bizitzaren erdigunea etadenbora propioaren jabe izateko beharrezkoak diren baldintzak, hau eragozten duten rolak (amatasuna, zaintza lanak, lanaldi hirukoitzak...) alde batera utzita. Etxea atsedean hartzeko, deskonektatzeko, intimitatea izateko eta amesteko lekua izatea nahi dugu.

### **Bortizkeria matxista zein transistemikorik gabeko tokia.**

Eragiten diguten bortizkeria desberdinen inguruan kontzientzia hartzea eta berauek borrokatzeko baliabideak eskuratzea erraztuko duen espazioa izango da. Etxeak bortizkeria matxistatik bizirik irtendako emakumeen eta inguruan dauden baliabideen artean zubi lanak egingo ditu.

### **Zerbitzuak koordinatzeko eta eskubideen defentsa-aldarrikapenerako espazio-sarea.**

Koloretzek jada existitzen diren baliabide eta informazioaren berri emango du, lana zein ahaleginak ez bikoizteko eta sinergiak sortzeko.

### **Emakume bakoitzaren erritmoa, nahiak, zailtasunak eta gaitasunak beti errespetatuko dituen tokia.**

Emakume bakoitzaren aniztasunaren errespetuari lehentasuna ematen dion Etxea izatea nahi dugu. Guztiok ez gara berdinak ezta nahi ere, era berean, ez gatoz leku beretik eta ez goa berera ere ez. Guztiok ez dugu zailtasun berdinekin topo egingo eta bizitzari modu ezberdinetan egingo diogu aurre.

## **3.3 JARDUERA ARDATZAK, HELBURU ZEHATZAK ETA EGINKIZUNAK**

Jarraian, esku hartze ardatzak eta berauetatik eratortzen diren helburu zehatzak zein Emakumeen Etxeak bete beharko lituzkeen helburuak azaltzen dira.



I. ARDATZA: Parte-hartze soziala eta Politikoa sustatzea

II. ARDATZA: Emakumeen aurkako bortizkeria mota guztiak deuseztatzea

III. ARDATZA: Emakumeen bizi baldintzak hobetzea

IV. ARDATZA: Berdintasunaren inguruko formakuntza, sentsibilizazioa eta ikerkuntza laguntzea

V. ARDATZA: Aniztasunak eta elkarezagutzea

## I. ARDATZA: EMAKUMEEN PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA

---

• **Emakume guztien parte-hartze modu ezberdinak bultzatzea.** Politika egunero errealitatea eraldatzeko egiten duguna dela irizten diogu: jendarte-mugimenduetan, guraso elkarteetan, auzo elkarteetan, auzoko emakumeen taldeetan... parte hartzen dugunean. Gure berezko agenda eta erritmoak markatzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, alderdi politikoetan eta sindikatuetan daukagun parte-hartze formaletik harago.

### Lotutako ekintzak:

- Zinez horizontalak diren espazioak garatzeko lan egitea, parte-hartze modu ezberdinak garatuko dituen hizkuntza inklusiboaren bilatzeari eta eraikitzeari ekinez. Ahozko nahiz idatzizko hitza ordezkatzeko dituzten forma berriak bilatzea emakume guztien parte-hartzea bermatzeko.
- Emakumeek modu askeago batean parte har dezaten baldintzak sortzea.
- Sarea egin eta gune ez formaletan elkartzea.

• **Emakumeen parte-hartzea sendotzea maila pertsonalean zein kolektiboan.** Hau, genero menpekotasunak apurtzea eta ondorioz, emakumeon autonomia eta askatasuna ahalbidetzen dituen espazio propio batean lan egiten lortuko dugu.

### Lotutako ekintzak:

- Emakumeen ahalduztzeari, bizi baldintzen hobekuntzari eta munduko emakume eta gizonen artean harreman justuagoak lortzeari zuzendutako proiektuak eta jarduerak egitea.

• **Emakumeen asoziazionismoa sustatzea.** Erabakiguneetan **emakume taldeen ikusgarritasuna**, eragin politikorako ahalmena, sinergiak eta emakumeen sareak, eta mugimendu sozialekin hartu-emanak eta abar indartzea.

### Lotutako ekintzak:

- Udalak zonalderako prestatutako planen diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan emakumeen parte-hartzea bultzatzea.
-

- **Taldean funtzionamenduari zuzendutako baliabideak** eskaintzea (lan egiteko, aisialdirako, elkartzeko eta batzartzeko; informazio-sarbidea, bilketa eta hedapena; taldeen osaketa eta funtzionamendurako aholkularitza, etab.)
- Feminismoaren inguruko eztabaida eta hausnarketa-guneak sustatzea eta jendarte osoarentzat erreferente izango den erreminta bat sortzea.
- Emakume eta emakume taldeen artean **informaziorako sarbidea** eta hedapena bultzatzea.

**Etxearen jokaeremuen lan eta parte-hartze gune ezberdinetan euskararen erabilera sustatzea.** Hizkuntzaren bidez emakume migratuen parte-hartzea bermatuko duten baliabideak izatea. Horretarako, Emakumeen Etxearen abokatuek, hezitzaileek eta gainerako langileek, euskaraz eta gaztelaniaz gain, eskatzen duten emakumeek arabieraz, frantsesez eta ingelesez komunikatu ahal izatea bermatuko dute.

Ilido beretik, langileen artean kultur aniztasuna islatuta egon dadila nahi dugu, emakume guztiek bere burua identifikatuta eta ordezkaturik senti dezaten. Era berean, edozein hizkuntzatan hizkera inklusiboaren erabilerari garrantzi handia emango diogu; jakinda hizkuntza errealitatearen gaineko ikuspuntu androzentrikoa eta lengoaiaren izara aurrehezigarria dela, eta ezberdintasunak iraunarazteko edo berauek ezabatzeko tresna izan daitekeela.

Euskaraz hitz egitera lagunduko diguten **ikastaroak eta jarduerak** antolatzea programa ludikoen bitartez (berbalagun taldeak, sukaldaritza ikastaroak, mendi irteerak...).

## II. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO BORTIZKERIAK DEUSEZTATZEA

---

- **Emakumeen kontrako bortizkeriaren deuseztatzea, arlo honetan lan egiten duten emakumeei zein bortizkeria jasan eta onartzen dutenei soilik dagokiela ideien inguruan talde-hausnarketa abiatzea.** Gertaera honen zergatia aztertu eta egunero gertatzen dela onartu behar dugu. Halaber, modu kolektiboan egin behar diogu aurre.

- **Emakumeen ahalduntzetik, autodefentsatik eta perspektiba feministatik harrera eta deribazio pertsonalizatua erraztea.** Emakume hauek bizirik atera diren emakumetzat hartuko ditugu, eta ez biktimatzat, era berean, horiek erabakiak hartu beharreko unean (maila juridikoan, psikologikoan eta sozialean), subjektu libreak izango dira.

- **Arreta gunea bortizkeria matxista izanda ere, bestelako bortizkeriei erreparatu, azaldu, zehaztu eta agerian jartzea. Zapalkuntza anizkunei estuki lotuta dauden bortizkeriak.** Indarrean dauden bortizkeriez jakitun izan, ezagutzera eman eta identifikatu egin behar ditugu; fisikoa, sexuala, psikikoa, psikologikoa, instituzionala, ekonomikoa, soziala, sinbolikoa, seme-alaben kontrakoa...

---

Begirada zapalkuntza anizkUNETAN jarriko dugu, horiek baitira bortizkeria mota ezberdinetan gorpuztea ahalbidetzen dutenak. Era berean, mikromatxismoak eta bortizkeria sinbolikoak (espazio publikoaren erabilera, estereotipo sexisten erreproduktzioa...) antzeman eta borrokatu behar ditugu.

• **Perspektiba feministatik zerbitzuak ematea eta erabakiak hartzeko orduan laguntzea, beti beren erabakiak errespetatzen eta beren portaerari buruzko epaiketa moralik egin gabe.** Bizirik atera diren emakumeekinegoera sozial, kultural, ekonomiko (sineskerak, kultura-baloreak, egoera ekonomikoa, lana/lanik eza, lan-eskarmentua, etxebizitza, pertsonak bere kargu...) eta psikologikoaren ondorioz (trebetasunak, jarrerak, jokaerak, autoestimua...) asimetriarik eta bazterketarik eragiten ez duten estrategiak eta mekanismoak erabiltzea:

**Lotutako ekintzak:**

- Kulturartekotasun eta feminismoaren ikuspegitik informazioa, laguntza, aholkularitza eta deribazioa eskaintzea.
- Diseinuan eta ebaluazioan emakumeak protagonistak izango diren planak egitea.
- Prostituzio egoeran dauden emakumeei laguntzeko ekimenak bultzatzea.
- Pertsonen salerosketa pairatu duten emakumeekin lan egiten duten elkarteekin lan egitea.
- Komunitatean dauden baliabide, informazio eta zerbitzuetarako sarbidea 24 orduz bermatzen duen erreferente bat izatea. Zerbitzu hauek ezagutarazteko kanpainak egitea eta emakumeen beharrian zehatzei konponbidea ematen dieten zerbitzu osagarrien sorreran eragitea.

• **Bortizkerien ezabapenaren gaian giza eskubideen ikuspuntua txertatzea eta egoera ez errepikatzeke eskubidea ere bermatzea.** Helburu nagusia emakumeen (eta beren seme-alaben edo menpekotasun egoeran daudenen) segurtasuna eta osotasuna ziurtatzea da, emakumeak hainbat eskubideren jabe ez direla sentiarazten dieten beldurra eta segurtasun ezarekin amaituz, salatu duten ala ez kontuan hartu gabe.

**Lotutako ekintzak:**

- Emakumeen artean eskubideen jaraunspena eta aldarrikapenaren sozializazioa, sustapena eta sensibilazioa bultzatzea
  - **Prozesu horietan dauden emakumeak aktiboki laguntzea eta erakunde publikoak presionatzea, arazo larri honi aurre egiteko baliabideak zuzen ditzatela.** Egunez egun, bere egoera dela medio, bizirautea besterik pentsatu ezin duten emakumeei bidea erraztean datza.
  - **Maskulinitate hegemonikoa eta bortizkeri matxistak zalantzan jartzen dituzten ekimenak babestea eta zuzentzea.**
-

### III. ARDATZA: EMAKUMEEN BIZI BALDINTZEN HOBEKUNTZA

---

- **Norberaren zaintza emozional, fisiko eta soziala.** Emakumeek, maila fisiko, emozional eta sozialean bere burua zain dezatela sustatzea.

**Lotutako ekintzak:**

- Norberaren denboraren kudeaketa eta gozamina sustatzea.
- Autoestimua, asertibitatea eta ahalduntzearen aldeko ekimenak bultzatzea.

- **Perspektiba feministatik nahiak, eskubideak eta ugaltze eta sexu-osasuna.**

**Lotutako ekintzak:**

- Formakuntza eta aholkularitza jarduerak antolatzea.
- Emakumeen Hausnarketa Taldeak: Elkarrekin hausnartzeko eta partekatze emakumeen hausnarketa taldeak osatzea.
- Sexu Orientaziorako Bulegoa. Sexu-aniztasuna eta askatasunaren inguruan informatzeko eta aholkularitza jasotzeko: sexu-aniztasun librearen bidez gure nahiekin berriz aurkitzeko.
- Gure auzoetako ikastetxe eta osasun-zentroi sentsibilizazioa, aholkularitza eta formakuntza eskaintzea.

- **Zapalkuntzaren alderdi anizkunei arreta eskaintzea.** Zapalkuntzaren alderdi anizkunen ondorioz emakumeek pairatzen duten arazoei arreta eskaintzea. Horietako arazo batzuk aipatuko ditugu jarraian, horiek, askotan, beraien artean interakzionatzen dute: bortizkeri matxistak, sexu-esplotazioa, administrazio-egoera irregularra (papeirik gabe), beren burua utzita daukaten adineko emakumeak, langabezia dauden eta itxaropenik ez daukaten emakume gazte ez gaituak eta gaituak, guraso bakarreko familiak, droga menpekotasuna daukaten emakumeak, etxerik gabeko emakumeak, xenofobia, lesbofobia eta transfobiari aurre egiten dieten emakumeak....

**Lotutako ekintzak:**

- Zapalkuntza faktoreren bat pairatzen duten emakumeak babestu eta laguntza ziurtatzea. Bereizkeria adierazpenen bat eta bereizkeria anizkunen kasuetan, bereziki.
- Zailtasun handikoak izan daitezkeen tramiteak egiteko laguntza eskaintzea (medikuarekin hitzordua eskatzeko laguntza teknikoak, etxebizitza, DBE-RGI-a).
- Laguntzea eta deribatzea.

- **Lan eta jendarte-arloa.** Emakumeei lan-munduan eta jendartean txertatzeko aholkularitza ematea eta jarraipena egitea. Emakumeak lan-munduan txertatzeko
-

ekimenak egitea eta horien lan-konpetentziak garatzen laguntzeko hobekuntza prozesuak bultzatzea. Beti, bere protagonismoa errespetatuz eta jendarte-eraldaketa alde eginez, halanola, emakumeen egoera profesional eta pertsonalaren hobekuntza eta ondorioz, bere autonomia ekonomikoaren gorakada helburu izanda.

**Lotutako ekintzak:**

- Lan-orientazioa landu, lan-bilaketan lagundu, lan eskaintzak helarazi eta lanari buruzko informazio zerbitzua ematea.
- Lan-munduan txertatzeko prozesuetan akonpainamendua egitea.
- Ekintza Positiboen bidez emakumeak lan-munduan txertatzeko aukerak sustatzea.
- Gure auzoetako formakuntza behar zehatzak hautematea, eta erakundeei zein existitzen diren baliabideei Etxean detektatutakoak aurkeztea. Era berean, sarean lan egitea, eta informazioa zein jadanik existitzen diren baliabideen berri ematea. Etxeak, auzoko beste eragileekin batera, presio eragile moduan jardungo du funtzionatzen ez duten formakuntzak hautematean, atenditzen ez diren eskarien kasuetan, eta beharrei jaramonik egiten ez dietenean.

- **Lan-sareak.** Emakume eta kolektiboen artean lan-sareen osaketa eta informazioaren elkartrukea sustatzea.

**Lotutako ekintzak:**

- Emakumeen Etxera jarduera zehatz bat egitera doazen emakumeen haurrak zein beren kargu dauden menpeko pertsonak zaintzeko kolaborazio sareak osatzea, erantzunkidetasunean. Hori horrela izanda, emakume horiek ere, baldintza egokietan, hurbildu eta parte hartzeko aukera izango dute. Emakumeen Etxean jarduerak dauden guztietan zaintzaren ardura kolektibizatuko da.
- Jakintzak elkarbanatzeko **Denboraren Banku** bat osatzea.
- Behar ditugun gauzen elkartrukea bultzatzea (jantziak, altzariak, pixoihalak, garbiketa-produktuak, eta abar.)

- **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna**

**Lotutako ekintzak:**

- Sentsibilizazioa eta formakuntza.
  - Etxeko emakumeek erabakitzen dutenean, gizonekin maskulinitate berriak bultzatzeko tailerrak egitea.
-

## IV. ARDATZA: BERDINTASUNAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA, FORMAKUNTZA ETA IKERKUNTZA SUSTATZEA

---

- **Etxean parte hartzen duten emakumeentzat talde barne-ikaskuntza feminista eta kritikoa sustatzea.**

### **Lotutako ekintzak:**

– Beste feminismo batzuk eta errealitatea interpretatzeko modu ezberdinak ezagutarazteko espazioak bultzatzea.

- **Begirada zuri, hegemoniko eta etnozentririk harago dagoen bestelako ikuspegiz jabetzen saiatzea** beste errealitate batzuetako emakumeak (migratuak, egoera prekarioan dauden emakumezko langileak, sexu-aniztasuna, eta abar) talde-prozesu baten partaide senti daitezen.

- **Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren inguruan, pertsona, enpresa eta erakunde publikoen artean kontzientzia-hartzea eta sentsibilizazioa bultzatzea.**

- **Estereotipoen haustura, eta emakume eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko balore berriak ekarriko dituzten sentsibilizazio kanpainak bultzatzea.** Hau horrela, emakumeek beren eskubideei buruzko kontzientzia hartuko dute.

- **Emakumeek historiari, halanola mugimendu feministak jendarteari egindako ekarpenak aitortzea, eta era berean, sistema patriarkalaren berrikuspenetik eta maskulinitate eredu berri batetik etor daitezkeenak ere bai.**

## JARDUERAK

**I. Jarduerak antolatzea.**

**II. Ikuspuntu feminista batetik zerbitzu eta aholkularitza ematea.**

**III. Azpiegiturak eta espazio zehatzak.**

Oro har, IV. Ardatzerako proposatutako jarduera, zerbitzu eta azpiegitura proposamen hauek, Emakumeen Etxeari “-artekoa” espazio feminista izaera ematen dio: belaunaldiartekoa, lanbideartekoa, kulturartekoa; espazio honen plangintzak aste-buruetarako proposamenak ere bilduko ditu, aste bitartean denbora ezagatik parte hartu ezin duten emakumeen parte-hartzea errazteari begira.

### I. JARDUEREN ANTOLAKETA

Lehenengo eta behin, Etxearen Programazioari dagokionez jarduerak, tailerrak, hitzaldiak, jardunaldiak, proiektioak eta topaketak antolatzeari garrantzi handia emango diogu.

---

Jorratu nahi diren interesezko gaien artean, honako hauek azpimarratzen dira:

- Estereotipo sexistekin apurtzeko baliabideak.
- Emakumeak eta hedabideak.
- Rola “Emakumeek historian izandako rolak eta berari egindako ekarpenak” (baita auzoko historian ere ).
- Mugimendu feministaren zeregina.
- Politika etageneroa.
- Aldarrikatzen ez diren lan horiek agerian jartzea : etxeke lanak, pertsonen zaintza, ugalketa... Sexuaren araberako lan-banaketa.
- Kulturartekotasuna eta berdintasuna.
- Hizkuntza ez sexista.
- Zaintzak eta norbere buruaren zaintza, eta erantzunkidetasuna: Denboraren Banku bat sortzea eta zerbitzu ezberdinak eskeiniko dituen nor bere buruaren zaintza egiteko gela bat.

### I.I. IKUSPUNTU FEMINISTA DUTEN ZERBITZUAK ETA AHOLKULARITZA

Bigarrenik, Emakumeen Etxeak, Emakumeentzako Informazio Zentroa bezala ulertuta, eskeiniko dituen zerbitzuei dagokienez erreferentziala izatea nahi dugu eta aholkularitza juridikoa zein informazioa eskainiko dituzten profesionalak, bai ezberdintasun matxistekin, bai hizkuntza eta kultura aniztasunarekin sentsibilizatuta egongo dira. Aholkularitza juridikoari dagokionez, emakumeak beste baliabide eta zerbitzu publiko batzuetara bideratzeko “sarrerako atea” bezala funtzionatuko du.

Zerbitzu onuragarrien artean, Emakumeentzako Informazio Zentroa nabarmentzen da. Zentro hau ikuspuntu feministatik honako gaiez arduratuko da:

- Doako aholkularitza juridikoa.
- Etxeko lanak eta zaintzak.
- Jendarte-prestazioak.
- Sostengua eta laguntza psikologikoa.

### III. AZPIEGITURAK ETA GUNE ZEHATZAK.

Azkenik, formakuntza, sentsibilizazioa eta ikerkuntza sustatzeko azpiegiturei dagokienez hurrengo proposamenak jaso ziren:

- Ikuspuntu feminista duten egunkariak, aldizkariak, liburuak eta bibliografia izango dituen liburutegia.
-

- Emakumeek historiari egindako ekarpenak ezagutzera ematen duen materiala.
- Informatika-gela.
- Ikasteko gela.
- Tailerrak egiteko gelak.
- Norbere buruaren zaintza egiteko aretoa.
- Aholkularitza Juridikoa egiteko aretoa.
- Aholkularitza Psikologikoa egiteko aretoa.
- Topaketak eta hitzaldiak egin ahal izateko edukiera handiagoko Erabilera Anitzeko Aretoa .

## V. ARDATZA: ANIZTASUNAK ETA (ELKAR) EZAGUTZA<sup>1</sup>

---

### GINARRI OROKORRAK

Esperientziak partekatu, elkar ezagutu eta berrezagutzea bilatzen dugu, ezjakintzasunak aurreiritziak eta beldurrak eragiten dituela uste baitugu. Ez dugu berdin pentsatzea bilatzen, baizik eta ikuspuntu eta esperientzia ezberdinetatik elkarrekin bizi eta eraikitzeke gai izatea.

### HELBURUAK

- Aniztasun eta identitate ezberdinak ezagutu, aitortu eta errespetatzea: funtzionalak, kulturalak, sexualak, arrazakoak edota adinekoak...
- Desberdintasunek aberats gaitzatela lortzea eta, aldi berean, elkartzen gaituena indartzea. Desadostasunen aurrean jarraibideak finkatzea sor daitezkeen desorekak saihesteko.
- Jarduera zehatzen bidezzein egunerokotasunean, emakume talde ezberdinen artean elkar ezagutzeko guneak erraztu eta sustatzea. Modu horretan Emakumeen Etxean sinergiak eta ahalduntze pertsonal zein kolektiboak emango dira.
- Bai zapalkuntza anizkunen, bai irabazitako eskubideen, baita norberak izan ditzakeen pribilegioen inguruan ere kontzientzia hartze ariketa bat egitea.

#### Lotutako ekintzak

- Ikasteko balio, eta bizikidetzaren berri ematen duten esperientzia desberdinak ezagutzera ematea.

---

1. Ardatz hau Auzo Garaietako Emakumeen Etxearen proiekturako zeharkakoa da eta auzootan bizi garen emakumeen berezitasunen berri ematen du. Era berean, ditugun nahiez eta beharrez hitz egiten digu, baita aniztasuna kudeatzeko erronkaz ere.

---



- Elkar ezagutza sustatu eta emakume guztien parte-hartzea errazten duten jarduerak, tailerrak, solasaldiak... antolatzea.
- Gure burua entzuteko eta gure jakiteak, arazoak eta egonezinak komunean jartzeko espazio komunak bultzatzea.
- Guk geuk kudeatuko dugun liburutegi feminista (liburuak, komikiak, fanzinak, musika, filmak...) bat sortzea.
- Kultura guztietako jai egunez osatutako egutegi bat sortzea eta berauek ospatzeko aukerak sortzea.
- Belaunaldi ezberdinetako emakumeak bil daitezzen topalekuak sustatzea, aisialdia ere ikasteko aprobetxatuz.
- Emakumeen Etxeko zein kanpoko taldeen artean komunikazioa erraztuko duten emakume bitartekariak izatea.

### 3.4 METODOLOGIA: PROZESU PARTE HARTZAILEA

Proposatutako ekipamenduak diseinatzeko orduan prozesu parte hartzaile bat abiaraztea ezinbestekoa da. Prozesu hori egunerokotasunean etxea erabiliko duten emakumeekin egin beharko da, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunean adituak diren erakundeek ezartzen dituzten irizpideei jarraituta. Irizpide horiek esku artean darabilzuen dokumentuan jasota daude.

Galtzagorri Taldeak hiru auzootako talde nahiz elkarteei proiektuaren berri eman-godie, eta ekarpenak egiteko aukera ere bai. 2016ko ekainean burututako jardunaldiak abiapuntu ona izan ziren, horietan auzoko emakumeekin ardatzen edukiaren inguruan aritu ginen, eta oraindik, horren inguruan ekarpenak egiteko aukera badago. Bestetik, eskuartearen darabilgun dokumentuan ekipamendu eta kudeaketari erreferentzia egiten dien atala ez da inongo esparru parte hartzailean proposatua izan, eta 2017ko azaro bukaeraldean antolatutako jardunaldiak alderdi hauen inguruan eztabaidatzeko plataforma paregabea izan daitezkeela irizten diogu.

### 3.5 EKIPAMENDU PREMIAK

Jarraian, Etxean burutuko ditugun jarduerak eta zerbitzuak aurkezten ditugu:

- Harrera eta Arreta: Etxera hurbiltzen diren emakumeei harrera egin eta arreta eskaintzeko gunea. Era berean, hiritarrei berdintasun gaiei buruzko informazioa emateko zerbitzua ere bertan egongo da.

- Emakumeentzako Ahalduentze Eskola: Ahalduentze Eskolan kokatutako formakuntza jarduerak.
- Emakumeentzako Informazio Zentroa: Emakumeei informazioa, eta aholkularitza juridiko zein psikologikoa emateko zerbitzua egongo da.
- Erakusketak eta kultura-ekintzak: arte-erakusketak, liburuen aurkezpenak, antzerkia, zine-forumak, eta abar.
- Hitzaldiak eta sentsibilizazio solasaldiak: solasaldiak, mahai-inguruak eta hiritarrak sentsibilizatzeko jardunaldiak.
- Emakumeen Dokumentazio Zentroa:Formatu ezberdinetan (liburuak, bideoak, egunkariak...) hurrengo gai hauen inguruan informazioa eta dokumentazioa biltzen duen gunea : emakumeekiko bereizkeria, Generoaren Teoria, feminismoak, eta abar. “La Bolsa” Eraikinean kokatutako “Maite Albiz” Dokumentazio Zentroarekin koordinatuko gara.
- Administrazio-laguntza: Etxeko administrazio langileentzako lantokia.
- Jolas-Kultura Topagunea: giro lasaian emakumeen arteko komunikazioa sustatzera bideratutako gunea.
- Gastronomia Kultura ezberdinak Harremantzeko eta Esku-hartzeko Zerbitzua. Bertan janaria prestatzeko aukera egongo da.
- Emakumeen arteko Denboraren Bankuaren Zerbitzua: liburuak, jantziak, bideoak, eta abar trukatzeko eta aldatzeko aukera egongo da.
- Arreta Psikologiko-Sexualerako Zerbitzua: *Auzolan* moduluarekin koordinatuta lan egingo du.

## ETXEAREN FUNTZIONAMENDU EGOKIRAKO

- Emakumeei berdintasunean parte hartzea eta adieraztea ahalbidetzen dien-biltzar bidezko sistema izango da.
  - Emakumeek libre parte ahal izatea, nahiz eta inolako taldearekin edo elkar-tearekin loturarik ez izan.
  - Etxearen antolaketan emakumeen (banaka edo taldeka) nahiz korronte feminista ezberdinen parte hartzea sustatzea.
  - Kultura ezberdinetako feministen parte hartzea bultzatzea.
  - Emakumeen Etxeak berezko egutegia izango du.
  - Ekintza ludikoek hartu-emanetarako aukera emango dute.
-

## ESPAZIOEN DEFINIZIOA

Jarraian, behin zerbitzuak eta jarduerak mugatuta, aurreikusten ditugun beharren araberrako espazioen definizioa egiten dugu.

### KAFETEGIA-TETEGIA-LIBURU-DENDA

Bestelako espazioekin interferitzen ez duen sarreran kokatutako espazioa dugu hau; kalea eta etxearen artean zubilanak egingo ditu. Hau da, Etxerako sarrera erraztuko du kontaktu aurretiko lehenengo pausua izanda, eta ez ditu teknika-rien lanak zein isiltasuna eta lasaitasuna eskatzen dituzten jarduerak oztopatu. Liburutegia irakurgai ludikoak izango dituen gunetxiki bat izango da, eta inguruko pertsonetxekin erabiltzaileek berau osatzen laguntzeko liburuak ekarri ahal izango dituzte.

### LUDOTEKA

Emakumeen Etxean, amek tailerretan parte hartu, edota kontsulta bat egiten duten bitartean, umeek jolastu eta ondo pasatzeko tokia izango da ludoteka. Bertan ez da jostailu zein material sexistarik egongo, eta umeen psikomotrizitatea sustatzeko koltxonetak egongo dira. Gainera, ludoteka goizez eta arratsaldean egongo da zabalik, auzoko amek, familia guraso bakarrek bereziki, bertan beren seme-alabak utz ditzaten bestelako gauzak egin ahal izateko: medikuarenera joan, lan-elkarrizketak egin, edota haurrak bere kargupean izanda egiteko zailak diren bestelako eguneroko eginbeharrak.

Hiru emakumek dinamizatuko dute espazio hau (batek goizez, besteak arratsaldean eta hirugarrenak asteburuetan). Kontratazioak, ekonomia solidario arloko enpresen bidez kudeatuko dira, eta jendarte-kalteberatasunegoeran dauden emakumeak kontratatzea lehenetsiko da.


### HARRERA ETA ARRETA

Etxeko sarreran egongo da, eta bertan harrera-bulego bat kokatuko da emakumeei eta hiritarrei harrera egin eta informazioa emateko. Halaber, horretan informazio orokorra erakusten duten argibide-etaulak egongo dira

### AHALDUNTZE ESKOLAREN EGOITZA

Ahalduntze Eskolak Bizkaian, 2003an Basauriko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasuna Sailak abian jarri zuen proiektu aitzindaria izan zen. Udalerriko ehun-sozialean emakumeen mugimendua berraktibatze asmoz sortu zen, eta dagoeneko antolatuta zeuden emakumeengana zein ez zeudenengana jo zuten. Proiektuak oso harrera ona izan zuen, eta ondorioz, 2004ean Getxo, Ondarroa eta Ermuko Udalak batu ziren *“Bizkaiko Emakumeen Ahalduntzerako Eskolen Sarea”* sortzeko.

Ondoren, beste udalerrri eta lurraldeetara hedatu dira. Egun, hiru lurraldeetan Ahal-duntze Eskolak daude, eta hauek udalerrriaren baliabideen araberrako ezaugarriak eta azpiegiturak dauzkate. Batzuk espazio propioak badauzkate (Emakumeen Etxea) beste batzuek ez. Batzuei Eskola izena eman diete, beste batzuei oraindik ez.



Egitasmo honek parerik ez dauka gurean, eta Espainiako Estatuan zein munduan erreferente bat da.

Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunaren alde lan egiteko baliabide aitzin-dariak dira *Ahal-duntze Eskola* hauek, eta Bilboko Udala, beste egitasmo batzuei dagokienez punta-puntakoa izanda ere, proiektu instituzional eta sozial honi lotze-ko aukera galtzen ari da .

Egindako lanaren balorazioa oso positiboa da, eta proiektuaren diseinua bera alde indartsuenetako bat dela egiaztatu ahal izan dugu. Lehenengo eta behin, sareko lanak esperientziak, hausnarketak eta ezagutzak elkartrukatzeko aukera handiagoa ematen duela, eraginkorragoa dela, eta baliabideen probetxu hobea eskeintzen due-la baieztatu ahal izan dugu.

Eskola bat eratzeak azpimarratu egiten du parte hartu ahal izateko formakuntza eta trebatzearen garrantzia; eta azkenik, emakumeen ahal-duntzearen kontzeptua eta estrategia prozesua indibidualetik kolektibora doala nabarmentzen du.

Helburua da gure errealitatea eta munduan daukagun posizioa modu kritikoa az-tertzeko baliabideak, ezaguerak eta jarrera emantzipatzailea eskuratzen laguntzea.

Formakuntza emateko espazioek argitsuak eta zabalak (20-30 emakume inguru bar-nean hartzeko) izan behar dute. Era berean, espazio hauek jarduera ezberdinak egin

ahal izateko prestatuta egon beharko dute: autodefentsa eta erlaxazio ikastaroe-tarako ispiluak, koltxonetak eta tatamiak beharko ditugu, eta hitzaldi zein tailer teorikoetarako mahaitxoak inkorporatuta daukaten aulki mugigarriak, arbela eta mahaiak.

#### **INFORMATIKA-GELA TXIKI BAT**

Gutxienez 12 emakumerentzako eta 12 ordenagailu ipintzeko tokia egon behar du.

#### **EMAKUMEENTZAKO INFORMAZIO ZENTROA**

Diskrezio baldintzak betetzen dituzten kontsultak egiteko espazioak behar dira, areto komunetatik eta taldeek erabiltzen dituztenetatik apartatuta.

#### **ERAKUSKETAK ETA KULTURA-JARDUERAK**

Arte erakusketak zein kultura-ekimenak egiteko espazio zabala beharrezkoa da. Espazio hau sarreran, harrera-informazio bulegoaren ondoan kokatuta egon daiteke.

#### **SENTSIBILIZAZIO HITZALDIAK ETA BILTZARRAK**

100 lagun barne hartu ahal izateko biltzar aretoa.

#### **SUSTAPENA, PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKA**

Emakume Taldeek erabili ahal izateko bulego txikiak izango dituen gela handi bat, bertan materialak gordetzeko tokia egongo da. Elkarreentzako bilera-gela bat, honetarako 25 emakume inguru hartzeko tokia izan behar du.

#### **EMAKUMEENTZAKO DOKUMENTAZIO ZENTROA**

Bertan, dokumentuak artxibatu eta ( liburuak, aldizkariak...eta abar ) kontsultatze-ko tokia egongo da.

#### **LAGUNTZA ADMINISTRATIBOA**

Aurreko gelen antzeko ezaugarriak izango dituen administrazio-langileak kokatzeko bulego bat.

#### **SUKALDEA**

Gastronomia-kulturaren bidez kulturen arteko hartu-emanak erraztuko dituen sukalde bat.

#### **KOMUNAK ETA DUTXAK:**

Etxearen erabiltzaileen ongizatea eta osasunari laguntzeko.

---

**BEHARREZKOAK DIREN GIZA BALIABIDEAK**

- 1 Berdintasun teknikari.
- 2 Kale hezitzaile.
- 1 Psikologo-sexologo.
- 1 Koordinatzaile edo kulturarteko bitartekaria.
- 1 Harreragile.
- 1 Gizarte-langile.
- 1 Abokatua.
- 1 Harreragile.
- 1 Jabetze Eskolaren dinamizatzaile.
- 3 Ludoteka hezitzaile.

Antzeman ditugun beharren ondorioz, euskara eta gazteleraz gain Emakumeen Etxearen langileen artean bestelako hizkuntzak menperatzen dituzten bi langilek gutxienez egon behar izango dute: arabiera, ingelesa eta frantsesa. Halaber, beharrezkoa den guztietan kanpoko itzulpen-zerbitzuak kontratatuko dira.

Amaitzeko, **Etxearen ekipamendua eraikitzeko** orduan kontuan hartu beharreko **gomendio** eta **iradokizunen** berri ematen dugu:

Etxean ez da hezi arkitektonikorik egon behar, eta bai aldiz, arrapalak eta gurpildun aulkiekin ibili ahal izateko gune zabalak. Era berean, mugikortasun urria duten pertsonentzat igogailu bat egongo da.

Eskailerek barandak izan behar dituzte

Teknikarien bulegoek argi naturala daukan, eta ondo aireztatua eta lasai lan egin ahal den toki batean kokatuta egon behar dute, bertan ordu asko emango baitituzte.

Gelak erabilera anitzekoak, eta hainbat pertsona barnean hartzeko modukoak izango dira. Holtz desmuntagarriak aldizkatze izan daitezke. Haietako batzuek ur eta elektrizitate hornidurarako instalazioa (hainbat entxufe) izan behar dituzte.

Espazioen distribuzioa, diseinua eta kopurua espazioak berak eskaintzen dituen aukeren arabera izango da.

---

# 4

## KOKAPENA, KUDEAKETA ETA FINANTZABIDEA

---

### 4.1. KOKAPENA

Harrobi kaleko 5. zenbakian kokatuta dagoen eraikinari egokiena deritzogu, hiru auzoak lotzen dituen korridore natural batean baitago. Halaber, plaza batean kokatuta dago eta honek irisgarritasuna bermatzeaz gain, bertaratzen diren emakume onuradunen intimitatea errespetatzen laguntzen du.

1917an altxatutako eraikin zahar hau antzina Higiene Bereziko Bulegoa izan zen, eta bertan emakume prostituten osasunaren eta sexu bidez transmititutako *gaixotasunen gaineko kontrola egiten zuten*. Kokapen hau gure proiektuaren garapenerako, ikuspuntu sinboliko zein fisikotik erabat estrategikoa dela uste dugu. Galtzagorri Taldeari eraikin hau emateak –Udala eta Koloretxe Emakumeen Elkartearekin koogestioan– halako jarraitutasun historikoa emango lioke 1915an Ricardo Bastida arkitektoak diseinatu zuen erreferentzia modernistak dituen eraikin eklektiko xume honi.

Plaza horretan, inguruan dagoen kareharrizko eta lapitzezko harrobiari izena zordiona, 1890an Bizkaiko lehenengo greba orokorra jazo zen. Ondoren, XIX. mendearen bukaeran prostituzioaren gorakadaren ondorioz, Bilboko Udalak, 1925an, higiene zerbitzu jakin baten sorrera bultzatu zuen Harrobi Plazan. Hau “*Dispensarioa edo Higiene Bereziko Bulegoa deritzon eraikinaren aurrekaria*” izan zen, eta izen ezberdinak eman zizkioten: *Higiene Bereziko Etxea, Komisaria eta Aurrezki Kutxaren Errukiaren Mendia*.

Duela gutxi, auzoak izan duen hirigintza-operazioaren ondorioz –denboran luzatutako degenerazio sozialaren prozesua eta gero- plazan zeuden zenbait eraikin historiko eraitsi dituzte. Eraikuntza haietatik, 1885an Hoffmeyer-ek egindako garai- pen-arkua (oroipen klasikoak dituen) eta egun Udaltzaingoaren egoitza den Ricardo Bastidaren eraikina baino ez dira mantendu.

Bilboko Udalak Galtzagorri taldeari eraikin hau ematea medeapen-egintza gisa ulertuko lukete bertako emakumeek, eta era berean, Eusko Jaurlaritzaren arabera “lehentasunezko arreta” behar duen zonalde bateko emakumeen bizitza hobetzeko positiboan eraikitzearen esperientzia bat bezala ulertu.

## 4.2 KUDEAKETA ETA FINANTZABIDEA

Proposatutako kudeaketa ereduari dagokionez, Bilboko Udalarekin koogestio eredu bat bultzatzearen aldeko apustua egiten dugu. Udalak proiektua dagoen tokia erabiltzea utziko liguke, eta espazioaren dinamizazioa (jendearentzako arreta zerbitzuko langileak eta eraikinaren mantenu gastuak) zein administrazio-kudeaketa finantzatzuko lituzke.

*“Koloretxe” Emakumeen Elkarteak, Posada de los Abrazos Elkarteak, Gaztaroa-Sartu Elkarteak, eta San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharreko Taldeen Koordinadorak osatzen dute. Era berean, emakumeen kolektiboekin lan egiten duten zonaldeko taldeek ere proiektuarekin bat egiteko aukera daukate. Koloretxe espazioaren dinamizazioan, jardueren proposamenean eta berauen ebaluazioan eta jarraipenean zentratuko da; hau guztia batzorde misto batean egingo da eta bertan Koloretxe osatzen duten elkarteen ordezkariak, Etxekozein Udaleko teknikariek eta langileak hartuko dute parte.*

Finantzabideei dagokienez, Emakumeen Etxeak antolatuko dituen ikastaroak, tailerrak eta jarduerak burutzeko Bilboko Udaletik, Bizkaiko Foru Aldunditik eta bestelako erakundeetatik jasoko ditugu diru-laguntzak. Proiektuaren kudeaketa egiteko orduan, beraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoez hornitu behar gara. Administrazio-kudeaketa Udalarari dagokio, eta proiektuaren kudeaketa, aldiz, Batzorde Mistoari. Batzorde Mistoak Udalak, Mugimendu Feministaren ordezkariak eta teknikariek osatuko dute.

Erakunde sozialek borondatezko pertsonala emango dute. Hauek proiektu eta kanpaina espezifikoeetan parte hartuko dute baina ez dituzte inolaz ere soldatapeko lanarekin lotzen diren zereginak egingo.

---



# 5

## ERANSKINAK

---

### 5.1. ARAUDIA ETA BERDINTASUN POLITIKEN BILAKAERA (ERANSKINA)

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna da Estatu demokratiko modernoan funtsezko balioetako bat, eta jendarte baten giza garapenaren adierazle garrantzitsuenetako bat.

Berdintasun politikak berdintasun-printzipioan dute jatorria. Printzipio honek pertsona guztiei eskubide berberak aitortzen dizkie, eta desberdintasunak eskubide-desberdintasuna ezartzeko, ez eta pribilegioak sortzeko ere ez direla oinarri nahikoa aitortzen du.

Hiritartasun unibertsalaren idealak bizitza politiko modernoaren bulkada emantzipatzailea zuzendu du. Baina, ustez unibertsala den hiritartasun honek hainbat talde utzi zituen kanpoan, haien artean populazioaren erdia ordezkatzeko duen emakumeena; zeintzuek historian zehar hiritartasunak ematen dituen pribilegio eta eskubideez gozatu ahal izateko eta kontuan har zitzaten presionatu behar izan duten.

Teoria feministak emakumeak kanpo uzten dituen berdintasun kontzeptua inpugnatu du. Iraultzek Erregimen Zaharrarekin bukatu zutenetik gizon zuri burgesek printzipio honetaz gozatu ahal izan dute, eta talde sozial ezberdinak barne hartzen joan da historian zehar. Egun, berdintasun printzipioa nazioarteko hainbat itunetan jasota dago baita herrialde gehienetako araudietan ere. Hala ere, oraindik egon badaude bereizkeria pairatzen duten taldeak eta pertsonak.

Talde askok ideologiagatiko, sexuagatiko, arrazagatiko, erlijioagatiko edo beste edozein arrazoiengatiko bereizkeria pairatzen dute, eta ondorioz bere eskubideez gozatzeko aukera berdintasunerako eskubidea, baita segurtasun fisikoarena ere urratuta dauzkate. Oraindik ere, emakumeek pairatzen duten bereizkeria arintzeko legeak, neurriak eta ekintzak proposatzen jarraitzea ezinbestekoa da.

Printzipio hau dimentsio bikoitzean interpreta daiteke:

**Tratu-berdintasuna:** Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

Adiera hau, haatik, ez da berdintasunari heltzeko nahikoa izan, bereizkeria pairatzen duten taldeen desabantaila sozialak murrizteko gai ez baita izan. Emakume eta gizonen posizioa hurbiltzeko berdintasun printzipioari aukera berdintasuna printzipioa gehitzen zaio.

---

**Aukera berdintasuna:** Agintariek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne.

Berdintasun printzipioaren interpretazio hau, berdintasun juridiko edo formala gainditu, eta eguneroko egoeretan berdintasun errealerantz arreta zuzentzen saiatzen den salto kualitatibo bat izan da.

Urte hauetan, berdintasun printzipioaren bilakaerak politika instituzionalen diseinuaren gainean eragina izan du. Horrela, sexu-arrazoiagatiko zuzeneko diskriminazioa ezabatzeko beharrak berdintasunaren gaineko lehen araudia bultzatu zuen, eta ondorengo garapen legegilea zeharkako diskriminazio egoerak antzematen eta ebazten dituzten neurriak sartzen joan da.

Jarraian, berdintasun kontzeptuaren inguruan egin diren Biltzar, Hitzarman eta Legeen laburpen laburra eta kontzeptua beraren bilakaeraren berri ematen dugu.

Berdintasun kontuetan, ur-jauziko efektuarekin, diseinatzen diren planak eta berdintasun arauemaileak Nazio Batuetako adierazpenetan oinarrituta daude, eta maila desberdinetan gauzatzen doaz eremu lokalean zehaztasun handienera iritsi arte.

## NAZIO BATUAK

### 1975, Mexiko– Emakumeen I. Mundu Biltzarra

1975. urtea “Emakumeen Nazioarteko Urtea” izendatu zen

### 1979. Emakumeen aurkako bereizkeria-mota guztiak desagerrarazteko Biltzarra

Emakume eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aldarrikatu zen eta emakumeentzako eskubideen unibertsalizazioa (lan, ekonomia, politika, zibil nahiz jendarte-arloetan) aurrerapen handia izan zen.

### 1980, Copenhague– Emakumeen II. Mundu Biltzarra

Emakumeen jabetza eta ondasunen gaineko kontrol eskubidea bermaturik izan zedin nazio-neurri kementsuagoak har zitezela bultzatu zuen. Halaber, jaraunspena, nazionalitatearen galera eta guraso-ahalaria dagokienez emakumeen eskubideen hobekuntzak aldarrikatu zituen.

---

### **1985, Nairobi- Emakumeen III. Mundu Biltzarra**

Berdintasunak giza jardueraren esfera guztia bere gain hartu behar duela aitortzen da. Beraz, hura lortzeko funtsezkoa da perspektiba hau esparru ezberdinetan txertatua izatea, eta emakumeen parte-hartzea aktiboa izatea kontu guztietan, eta ez soilik emakumeei dagozkien horietan

---

### **1995, Beijing- Emakumeen IV. Mundu Biltzarra**

Emakumearen gaineko arreta zentroa genero kontzeptura eramanda, jendartearen egitura osoa, eta era berean, gizonen eta emakumeen arteko harreman guztiak berriz ebaluatu behar zirenaren aitortza izan zen gertatu zen funtsezko transformazioa.

## **EUROPAR BATASUNA**

### **1957-Erromako Ituna**

119. Art. Lan beragatik, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ordainketa-berdintasun printzipioa. Emakumeek eta gizonek eskubide bera dute, lana bera edo balio bereko lana eginda, ordainsari berbera jasotzeko.

---

### **1997-Amsterdameko Ituna**

3.2. Art. Genero zeharkakotasunaren kontzeptua lehen aldiz sartzen da

6.A. Art. Batzordeak bereizkeriari aurre egiteko neurriak hartu ahal izango dituela ezartzen du.

## **ESPAINIAKO ESTATUA**

### **1978 -Espainiako Konstituzioa**

14. Art. "Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminaziorik SEXU arrazoiengatik".

9.2. Art. "Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen ASKATASUNA eta BERDINTASUNA benetakoak eta eragingarriak izan daitezten, botere publikoei baldintzak sustatzea dagokie. Era berean, osotasunera heltzea zailtzen duten oztopoak ezabatzea eta herritarren parte hartzea erraztea politika, ekonomia, kultura eta baita gizarte mailan ere botere publikoen betebeharra da.

---

1999-39/1999 Legea.Langileen lan-bizitza eta familia bateragarri egitea sustatzen du

2004. 1/2004 Genero Indarkeriaren kontrako Babes Osorako Neurrien gainekoa

2007-3/2007 Lege Organikoa, emakume eta gizonen artean benetako berdintasunaren aldekoa

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

### Autonomia Estatutua


9.1. Art. Berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da.

9.2d) Art.Zera adierazten da: herri-aginteek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeke betebeharra dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

### 4/2005 Legea,Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Honetan, euskalherri-administrazioen esku-hartzearen oinarritzko printzipioak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez: tratu berdina, aukera-berdintasuna, genero-ikuspegiaren integrazioa, ekintza positiboa, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkaritza orekatua eta lankidetzeta eta koordinazioa.

## BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN BILAKAERA



Berdintasunerako politketan, gaur egun, zeharkakotasuna edo *mainstreaming*-a bereganatu behar da, erabaki politiko guztietan kontuan hartu beharreko estrategia denaldetik. Planak funtsezko tresnak dira zeharkakotasun hori lortzeko. Europako Kontseiluaren arabera, zeharkakotasunaren edo *mainstreaming*-aren kontzeptu horiek genero-berdintasunaren ikuspegia politikaneta prozesu politikoaren maila eta etapa guztietan txertatzea dakar, baita eragile politikoaren konpromisoa eta inplikazioa ere.

Estrategia honek inplikaturako pertsonen pentsaeran zein portaeran sekulako aldaketak dakartza.

Martxan jartzeko honako hau behar da:

**Kontzientzia hartzea.** Prozesuetan inplikaturata dauden pertsonen eta prozedurarako arduradunek kontzientzia hartu behar dute. Teknikariek nahiz politikariek aukera-berdintasuna lortzeko “aldatzeko” beharra barneratuta izatea beharrezkoa da.

**Formakuntza teoria** zein esku-hartze arloan funtsezkoa da. Batetik, teoria arloan aurrerapenen kontra operatzen dituzten erresistentziak eta berdintasunik eza produzitzen duten kausak analizatzeko; eta bestetik, esku-hartze mailan politika publikoei, programak diseinatzeko orduan bere eraginkortasunaren inguruan galdekatzeko dauden metodologiak eta berdintasun ezaren irautean edota gainditzean daukaten eragina ezagutzeko.

**Koordinazioa.** Zeharkakotasuna emakumeak eremu eta prozesu guztietan ordezkaturata egon daitezen borondate integralarekin jaiotzen da. Emakumeak beste talde bat balira, edo gutxiengoan dagoen talde bat bezala tratatzea nahiko ohikoa da. Emakumeak gutxiengo balira bezala tratatzea sarritan ematen den hurbilketa estatistiko honek estatus-gutxiagotasunarekin lotura zuzena du, emakumeak populazioaren erdia baitira. Arlo guztien arteko koordinazioa funtsezkoa da, haietako bakoitzean dauden berdintasun ezak antzemateko.

**Zapalkuntza anizkunak ikusgai egitea** beharrezkoa da, talderik kalteberenak eta diskriminazio handiagoa jasaten dutenak ikusezin ez bihurtzeko. Honela, omisioagatiko zapalkuntzari galga jartzea bilatzen da, eztabaida-mahaian zapalkuntza desberdinak eta beren artean dauden loturak jarriz. Auzoaren ezauzgarriak kontuan hartuta, ikusgarritasun lan hau funtsezkoa da. Zentzu honetan, zonaldeko emakumeen bizitzetanzapalkuntza faktore bezala joka ditzaketen baldintzatzaile batzuk aipatu nahi ditugu: etnia, jatorria, adina, hizkuntza, ezkutu lana, formakuntza akademikoa, sexu-orientazioa, familia-kargak, jendarte-klasea edo jendarte-bazterketa egoera, besteak beste.

Halere, genero zeharkakotasunaren edo *mainstreaming*-aren aplikazio egokiak denbora luzea behar du, eta sarritan beste estrategia batzuekin laguntzea beharrezkoa izaten da, hain zuzen ere, aukera-berdintasunerako politika espezifikoekin

Berdintasun gaietan adituak diren nazioarteko erakunde guztiak bat datoz estrategia biak batera abiarazteko behararekin, hau da, emakume eta gizonen berdintasun gaietan estrategia duala erabiltzean. Zeharkakotasun-printzipioa abiapuntu hartuko duen eta modu koordinatuan lan egingo duen berdintasun sail edo arlo sendo bat beharrezkoa da, proiektuak bultzatu eta jendarte-eragileak mobilizatzeko. Testuinguru honetan eskatzen dugu aukera-berdintasuna bermatzeko politika espezifikoko neurrien artean kokatzen den Emakumeen Etxe bat sortzeko laguntza eta finantzazioa.

## 5.2. EAEko BERDINTASUNERAKO IV. PLANA. AHALDUNTZE ARDATZA. (ERANSKINA).

Emakumeak ahalduntzeko kontzeptua, Nazio Batuek Nairobín 1985an egindako Nazioarteko Emakumeari buruzko III. Mundu Biltzarrean eman zen ezagutzera eta honela definitzen da: emakumeen kontzientzia-hartze prozesuakerabaki-hartze prozesuetan, boterea erabiltzean eta eragiteko ahalmenean beren parte-hartzea handitzea ahalbidetuko du.

Ahalduntze prozesuak bi maila dauzka:

- Indibiduala: Emakumeek pairatzen duten menpekotasunaren inguruko kontzientzia-hartze prozesua.
- Kolektiboa: Emakumeek sufritzen duten diskriminazioa eta menpekotasunaren gainean kontzientzia kolektiboa eskuratzea.

Subjektiboa zein objektiboa, indibiduala zein kolektiboa, halanola tokian tokikoa zein globala barnehartzen dituen estrategia zabala da. Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoa eskubide osoko hiritarraren estatusa lortzeko ezinbesteko estrategiak dira.

4/2005 Legeak emakumeen eta gizonen berdintasuna erreala izan dadin emakumeek, agintea eta baliabideetarako sarrera eskuratzeaz gain, berauek erabili eta gauzatu ahal izateko neurriak areagotzearen beharra azpimarratzen du. Hirugarren tituluaren barruan, jendartearen eta politikaren arloko emakumeen parte-hartzea indartzeko neurriak ezartzen dira.

## 5.3. BERDINTASUN POLITIKAK BILBON (ERANSKINA)

Era sintetikoan, berdintasun politiken ibilbidea hurrengo mugarren inguruan egitura daiteke:

- 1997ko apirilaren 11. Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Udal Planaren onarpena. 1997-2002.

- 2003ko martxoaren 23a. Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako II. Udal Planaren onarpena. 2003-2006.
- 2007ko ekaina. Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako II. Udal Planaren azken ebaluazioa.
- 2009ko maiatzaren 28a. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Planaren onarpena. 2009-2012
- 2013ko urria. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Planaren ebaluazioa
- 2014-2017: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Plana.

Denboran iraun duen prozesu hau ezin izanzitekeen garatu herritarren eta, batez ere, mugimendu feministaren eta Bilboko emakumeen elkarteen babes eta partaidetzarik gabe. 2005eko ekainaren 20an, hain zuzen ere, Bilboko Udalarekin batera Bilboko Emakumeen Berdintasunerako Kontseilua eratzeko erabakia hartu zuten. Aholkularitzarako eta informaziorako kontseilu sektorial horrek hiribilduko emakumeen partaidetza demokratikoa bermatzea du helburu, udalerriko arlo politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna garatzean eta bultzatzean.

Berdintasunerako politikak udal-arloan finkatzeko prozesu horretan, hiru barne-egitura nabarmendu behar dira, euren izaera desberdina bada ere:

**Sail Arteko Batzordea.** Udalak genero-berdintasunaren arloan garatutako jarduketaren koordinaziorako eta jarraipenerako Sail Arteko Batzordea Alkatetzak 2005eko maiatzaren 6an emandako dekretuaren bidez sortu zen, eta udal-sailtako zein erakundeetako administrazio-arloko arduradunak dira bertako kideak.

**Berdintasunerako Planen Jarraipenerako Batzorde Politikoa.** Alkatetzak 2006ko otsailaren 3an emandako dekretuaren bidez sortu zen, eta Udalbatzan ordezkariak duten alderdi politiko guztietako udalkideak dira bertako kideak.

**Berdintasunerako Batzordea (2013).** Giza Baliabideetako langileak, Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarren Saileko langileak eta Langileen Batzordean ordezkariak duten sindikatuak dira bertako kideak.

Egun indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Plana bost printzipio gidaritan dago oinarrituta, eta honako honen arabera zehaztu dira: lortutako aurrerapausoak, sortutako aliantzak, prozesu osoan metatutako ikaskuntza eta etapa berri honetarako zehaztutako erronka berriak.

Bost printzipio gidariak honako hauek dira:

- Emakumeen ahalduntzea.

- Tokiko gobernantza eraginkorra.
- Tokiko gobernantza parekidea.
- Aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetua.
- Erantzunkidetasun soziala, guztiak elkarren artean lotuta daude.

Bilboko Udalak gaitasunen ikuspegia ezarri du azterketarako zein jarduketarako esparru moduan, udal-eremuan egindako ekintza positiboak abian jartzeko orduan.

Hona hemen euren azalpena:

Gaitasunen ikuspegiak honakoarekin dauka zerikusia: pertsonak benetan zer egiteko eta zer izateko gai diren, izateko eta eurentzat garrantzitsua dena egiteko dituzten aukerak eta nolako bizimodua izan nahi duten askatasunez erabakitzeo daukaten aukera. Laburbilduta, ikuspegi horrek giza ongizatea zehazten du norberak garatu dezakeen bizi-kalitatearen arabera.

Bi norabideko ikuspegi berritzailea da. Batetik, Bilboko emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko orduan emakumeek eragile aktibo moduan daukaten banakako ahalduntzea nabarmentzen du. Bestetik, ahalduntze kolektiboa aitortzen du, eta, horretarako, instituzioek bultzatzaile konprometitu moduan duten lidergoa azpimarratzen du, baita berdintasunerako politika horiek udalerrian ezartzeko orduan jendarte zibil orokorrak daukan zeregina ere.

Ikuspegi horrek lau **gaitasun** nagusiren inguruan egituratzen ditu esku-hartzeak:

1. Emakumeen Autonomia Ekonomikoa: gizonek bezalako baldintzetan soldatapean laneratzean eta diru-sarreretak beste iturri batzuk lortzean emakumeek euren diru-sarrerak eta baliabideak sortzeko duten gaitasuna da. Azalpen honetan, denboraren erabilera eta emakumeek ekonomian duten ekarpena hartzen dira kontuan.
  2. Emakumeen Ordezkaritza Sozial eta Politikoa: emakumeek bizitzako arlo guztietan parte hartzeko eta agerian jartzeko duten gaitasuna da.
  3. Emakumeen Segurtasuna: genero ikuspegia eta giza eskubideak kontuan hartuta, norberaren segurtasunaren eta osasun bateratuaren sustapena modu integralean jorratzeko gaitasuna da.
  4. Kontziliazioa eta Erantzunkidetasuna: berdintasunezko eredu sozial berria eratzeko gaitasuna da, eta pertsonen denboren erabilera berdintasunezkoagoan dago oinarrituta (familia, lana, norberaren bizimodua...).
-





